

RESOLUCION DEL VICECONSEJERO DE AGRICULTURA, PESCA Y POLITICA ALIMENTARIA, POR LA QUE SE SOMETE A CONSULTA PREVIA LA ELABORACIÓN DE UNA DISPOSICIÓN DE CARÁCTER GENERAL QUE REGULE LA PESCA-TURISMO Y LAS DEMOSTRACIONES DE PESCA EN AGUAS MARÍTIMAS Y CONTINENTALES DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI

El Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras considera oportuno elaborar una disposición de carácter general con el objeto de regular la pesca-turismo y las demostraciones de pesca en aguas marítimas y continentales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

El artículo 133.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas dispone que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto de disposición normativa, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente, en la que se recabará la opinión de las personas y organizaciones más representativas potencialmente afectadas por la futura norma.

La consulta se debe referir a los siguientes aspectos:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.
- c) Los objetivos de la norma.
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias.

Por ello, se pretende dar cumplimiento al citado trámite de consulta previa a la elaboración de la norma, a los efectos de que la ciudadanía y demás entidades afectadas por la norma tengan la posibilidad de participar y realizar aportaciones a la norma que se plantea.

Por todo ello, la consulta:

- Se abre a todas aquellas instituciones públicas y personas físicas, así como organizaciones, entidades o asociaciones que puedan considerarse afectadas por esa futura regulación normativa.
- Se publicará en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.
- Se establece un plazo de diez días hábiles para que las instituciones afectadas, la ciudadanía y sus entidades presenten todas aquellas sugerencias u observaciones que tengan por conveniente.

Ese trámite de consulta pública es, por tanto, el que en estos momentos se realiza siguiendo el esquema legal previsto. Se efectúa, además, con carácter previo a la elaboración del proyecto normativo y dentro de la fase de iniciación que regulan los artículos 4 y 5 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del Procedimiento de Elaboración de las Disposiciones de Carácter General.

En virtud de las competencias atribuidas por el Decreto 74/2017, de 11 de abril, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Desarrollo Económico e Infraestructuras

RESUELVO

Primero. Someter a trámite de consulta pública, con carácter previo a su elaboración, el proyecto de una disposición de carácter general que regule la pesca-turismo y las demostraciones de pesca en aguas marítimas y continentales de la Comunidad Autónoma de Euskadi.



Nahi izanez gero, J0D0Z-T1PH5-NC18 bilagailua erabiltzaileak, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: <http://euskadi.eus/lokalizatzailea>

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T1PH5-NC18 en la sede electrónica <http://euskadi.eus/localizador>

Segundo. La ciudadanía y entidades afectadas por la norma, que así lo consideren, pueden hacer llegar sus opiniones sobre los aspectos planteados en el Anexo a esta Orden en el plazo de diez días hábiles, contados desde el día siguiente al de su publicación en el portal web de la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Bittor Oroz Izagirre

VICECONSEJERO DE AGRICULTURA, PESCA Y POLÍTICA ALIMENTARIA

ANEXO

1.- Problemas que se pretenden solucionar con esta iniciativa normativa

Ausencia de regulación de la pesca-turismo.

2.- Necesidad y oportunidad de su aprobación

El turismo pesquero puede ayudar a diversificar la economía en las zonas pesqueras, mediante actividades complementarias que generen nuevos ingresos, promocionen los productos de la pesca y promuevan la recuperación de la cultura, tradiciones y patrimonio vinculados a estas profesiones.

3.- Objetivos del proyecto normativo que se pretende elaborar

- Difundir el patrimonio, las tradiciones, los oficios, la gastronomía y la cultura vinculados a la pesca, la acuicultura y el entorno de estos sectores.
- Promover y revalorizar los productos de la pesca y la acuicultura.
- Divulgar las técnicas pesqueras, los artes y utensilios de pesca y la evolución social, económica y tecnológica de este sector.
- Facilitar la adquisición de productos pesqueros y materiales de recuerdo vinculados a la actividad pesquera y la acuicultura.
- Cualquier otra que permita la dinamización económica y la promoción de los sectores de la pesca y la acuicultura.

4.- Posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias

La única solución es la elaboración y aprobación de una norma.

EBAZPENA, NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAI-POLITIKAKO SAILBURUORDEARENA. HONEN BIDEZ, AURRETIKO KONTSULTAREN MENDE UZTEN DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ITSAS-UR ETA UR KONTINENTALETAKO TURISMO-ARRANTZA ETA ARRANTZA ERAKUSTALDIAK ERREGULATUKO DITUEN XEDAPEN OROKOR BAT EGITEKO PROIEKTUA

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako Sailak egoki ikusi du Euskal Autonomia Erkidegoko itsas-ur eta ur kontinentaletako turismo-arrantza eta arrantza erakustaldiak erregulatzeko xedapen orokor bat egitea.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1. artikulua ezartzen duenez, kontsulta publikoa egingo da xedapen arautzaile baten proiektua egin aurretik, eskudun administrazioaren web-atariaren bitartez. Kontsulta horretan, etorkizuneko arauak gehien uki ditzakeen pertsonen eta erakundeen iritzia bilduko da.

Kontsultak alderdi hauek jaso behar ditu:

- a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.
- b) Ekimena onartzeko premia eta aukera.
- c) Arauaren xedeak.
- d) Egon daitezkeen ordezkio irtenbide erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak.

Hori dela-eta, aurretiko kontsultaren izapidea bete nahi da araua egin baino lehen, arauak gehien uki ditzakeen herritarrek eta erakundek parte hartu ahal izan dezaten eta ekarpenak egin ahal izan diezazkieten etorkizuneko arauari.

Horregatik guztiarengatik, kontsulta:

- Etorkizuneko erregulazio arautzaileak uki ditzakeen erakunde publikoei, pertsona fisikoei, antolakundeei, erakundeei eta elkartei irekitzen zaie.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren web-atarian argitaratuko da.
- Hamar egun balioduneko epea ezartzen da eragindako erakundek, herritarrek eta beren entitateek egokitzen jotzen dituzten iradokizun eta iruzkin guztiak aurkez ditzaten.

Hortaz, kontsulta publikoko izapide horixe da aurreikusitako legezko eskemari jarraituta orain egingo dena. Halaber, arauzko proiektua egin aurretik gauzatuko da kontsulta hori, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 4. eta 5. artikuluek arautzen duten hasiera-fasearen barruan.

Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 74/2017 Dekretuak esleitzen dizkidan eskumenekin bat eginez, honako hau

EBAZTEN DUT

Lehenengoa.- Kontsulta publikoaren izapidearen mende uztea, egin aurretik, du Euskal Autonomia Erkidegoko itsas-ur eta ur kontinentaletako turismo-arrantza eta arrantza erakustaldiak erregulatzeko xedapen orokorraren proiektua.

Bigarrena.- Herritarrek eta arauak eragindako entitateek, hala nahi badute, hamar egun balioduneko epean helarazi ahalko dituzte Agindu honen eranskinean azaltzen diren alderdiei buruzko iritzia, kontsulta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren web-atarian argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Bittor Oroz Izagirre
NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKAGAI-POLITIKAKO SAILBURUORDEA

ERANSKINA

1.- Arauzko ekimen honekin konpondu nahi diren arazoak

Turismo-arrantza araututa ez izatea.

2.- Ekimena onartzeko premia eta aukera

Marinel-turismoa lagungarria izan daiteke arrantzaguneetako ekonomia dibertsifikatzeko, diru-sarrera berriak sortzeaz eta arrantza-produktuak sustatzeaz gain, halako lanbideekin lotutako kultura, tradizioak eta ondarea berreskuratzea bultzatuko duten jarduera osagarrien bitartez.

3.- Egin nahi den proiektu arautzailearen xedeak

- Arrantzarekin, akuikulturarekin eta bi sektore horien ingurunearekin lotutako ondarea, tradizioak, lanbideak, gastronomia eta kultura zabaltzea.
- Arrantzako eta akuikulturako produktuak sustatzea eta horien balioa handitzea.
- Arrantzako teknikak, arteak eta lanabesak hedatzea, baita sektore horren bilakaera sozial, ekonomiko eta teknologikoa ere.
- Arrantzako produktuen eta arrantza- eta akuikultura-jarduerarekin lotutako oroigarrien erosketa erraztea.
- Arrantza-sektorearen eta akuikultura-sektorearen dinamizazio ekonomikoa eta sustapena ahalbidetzen duen beste edozein helburu.

4.- Egon daitezkeen ordezkoi irtenbide erregulatzailerak eta ez-erregulatzailerak

Arau berri bat egitea eta onartzea da irtenbide bakarra.